



Prensa oharra

Kontsumo arduratsua goaren aldeko apustua

EROSKI-K AECOC-EN LEAN&GREEN SARIA IRABAZI DU, CO₂ GUTXIAGO IGORTZEKO PLANAREKIN

- **LEAN & GREEN** proiektuaren helburua da konpainia liderren sare bat eratzea iraukortasun logistikaren alorrean, aurrezpen gaitasuna handitzeko eta bere CO₂ emisioak %20 behintzat gutxitzeko 5 urtean
- **EROSKI**k, saria irabazteko, ekintza plan bat prestatu du; plan horretan, ehuneko hori gutxitzeko helburua dator, eta proiektu horren liderra izango da, norekin eta kontsumoaren sektoreko beste hamabost enpresarekin
- **EROSKI**k zin dago ingurunean egiten duen kaltea gutxituko duela, prozesuak, egoitzak eta produktuak hobetuta iraukortasun ekonomiko, sozial eta etikoaren aldetik

Madril, 2018ko urriaren 10a.- [EROSKI](#)k [LEAN & GREEN](#) proiektuko saria irabazi du [AECOC Ekoizleen eta Banatzaileen Elkartearen](#) eskutik. Ziurtagiri horrekin, EROSKI Taldea liderra izango da LEAN & GREEN plataforman, kontsumoaren sektoreko beste hamabost enpresarekin.

LEAN & GREEN proiektuaren helburua da konpainia liderren sare bat eratzea iraukortasun logistikaren alorrean, zertarako eta aurrezpen gaitasuna handitzeko eta CO₂ emisioak %20 behintzat gutxitzeko 5 urtean. Sari horrekin, EROSKI erakusten du 2015 eta 2020 artean ehuneko hori gutxitzeko ekintza plana aurkeztu duela. Europar LEAN & GREEN dago kolaborazio plataformarik handiena, bereziki horniketa-kateko emisioak gutxitzeko bideratua. Nazioarteko eta lanbide arteko ekimen bat da, helburu duena enpresei laguntzea berotegi efektuko gasak gutxitzen; horrekin batera, asmoa da helburu zenbatgarri bat iristen laguntzea eta beste enpresa batzuekin maila nazionalean bezala Europa mailan lankidetzan aritzea; orobat, jardunbide onak partekatzea, eta iraukortasunaren erreferente izatea, segimendu sistema garden eta jarraitzeko moduko baten bidez.

"Logistikaren eremukook eta EROSKI Talde osoak uste dugu bost urtean igorpenak %20 gutxitzearekin batera, gure lan eta kontrol prozedurak sendotzen eta gaurkotzen ditugula ingurumena ardatz harturik gure [Osasunaren eta Iraukortasunaren aldeko Konpromiso](#) berrituak betetzeko orduan", esan du

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



EROSKIko operazio zuzendariak, Alberto Madariagak. *"Lean & Green ekimena ezin hobe ezkontzen da erakundearen helburuarekin; hau da, berotegi efektuko gasen emisioa gutxitzea. Bost urtean logistikaren eremuan emisioak %20 jaitsiz gero, errazago lortuko dugu 2025erako %25 jaisteko helburu globala".*

AECOCek, berriz, EROSKI zoriondu du *"konpromiso sendoa agertu duelako garapen eredu iraunkor baten alde, eta, orobat, berotegi efektuko gasen emisioak neurtzeko eta gutxitzeko planak eginak dituzten enpresen buruzagitza hartu duelako"*, esan du erakundeko zuzendari nagusiak, Jose M. Bonmatik.

Logistika efizienteagoa

Joan deneko bi urtean ari da EROSKI neurriak hartzen. *"2017ra arte harturiko neurriekin, %12,94 gutxitu dugu CO₂ kopurua. Horretarako, berrantolaketak egin behar izan ditugu Erdialdeko, Hegoaldeko eta Iparraldeko plataformetan, Freskoen eta Elikagaien ibilbideak integratu ditugu eta eskifaian gehien kutsatzen zuten ibilgailuak kendu egin ditugu"*, azaldu du kooperatibako operazio zuzendariak.

Aurten, martxan dira beste ekintza batzuk, markaturiko helburuak erdiesteko bidean. *"Ibilgailu berriak ipini ditugu (gasezko ibilgailuak, citytrailerrak, megakamioiak...) eta efizientzia hobetzeko lan prozedura berrietan murgildurik gaude; zamalanetako prozedurak aldatu ditugu kamioiak gehiago zamatzeko. Bestalde, gaueko zamalanetako prozeduretan helburua da urtero denda kopurua handitzea irtenbide iraunkor baten bidez"*, esan du EROSKIko operazio zuzendariak.

Plataforma iraunkorragoak

"Berotegi efektuko gasen igorpena gure jarduera logistikoan gutxitzeko orduan, ez gara gelditu soilik horniketa efizienteago batean eta gutxiago kutsatzen duten ibilgailuetan; aitzitik, ekintza lerro batzuk prestatu ditugu, zertarako eta: batetik, apustu egin dugu eraikuntza iraunkorra sustatzeko eta energia aldetik efizienteenak diren eta ingurumenean gutxiena jotzen dute ekipoak bultzatzeko, eta, bestetik, LED argiztapenaren alde egin dugu, eta beroketa globala eragiteko potentzia txikia edo hutsala duten gas hozgarriak erabili. Gainera, gure helburua da energia berdea erostea; gaur egun, gure plataformen %20tan darabilgu dagoeneko. Bestalde, hondakinak kudeatzeko ereduaren, ekonomia zirkularraren printzipioak darabiltzagu", esan du Alberto Madariagak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



EROSKI, hondakinak alferrik ez galtzeko konpromisoa zintzo betez, lanean ari da sortzen dituen hondakinak gutxitu eta berrerabiltzeko, birziklatzeko edo saihestu ezin diren hondakinak berriz baloratzeko. Horretarako, 46 ontzi logistiko berrerabiltzen ditu urtean bere plataformetan, eta sortzen dituen hondakinak birziklatzen direla bermatzen du alderantzizko logistikaren eta gestore baimenduen bidez.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)